



Hezkuntza Aiaraldean

HAURRESKOLAK
BATXILERGOA ·
LANBIDE HEZIKETA ·
UDALEKUAK ·

ATERA PUNTA ETORKIZUNARI

*Gehigarri
berezia*

Laudio Ikastola

Haur Hezkuntza

Hiru oinarri, haurren autonomia eta ongizatea bermatzeko

Mugimendu askea, kalitatezko zaintza eta sozializazio baketsua. Horiek dira Laudio Ikastolako haur hezkuntzan lantzen ari diren oinarriak.



Hiru oinarri dituzte ardatz gisa Laudio Ikastolako haur hezkuntzako Sehaska eta Kataka geletan, haurren autonomia, ongizatea eta sozializazioa sustatzeko.

Oinarri garrantzitsuenetako bat “mugimendu askea” deritzona da. Haur batek bere motrizitatea modu autonomoan garatzea da helburua. Ikastolako kideen arabera, oso onuragarria da haurrarentzat helduen inolako presiorik gabe ibiltzen ikastea. “Ikasketa prozesuaren epeak oso zabalak dira”, azaldu dute hezitzaileek, “badira 13 hilabeterekin oinez hasten diren haurrak eta baita 20 hilabeterekin hasten direnak ere. Eta hori normala da, ez da ezer gertatzen”. Umeen mugimendu aske hori bermatzeari begira, aldaketa ugari egin dituzte haur hezkuntzako espazioetan. Gune zabalak atundu dituzte, zeintzuetan haurrak gela batetik bestera nahieran ibili daitezkeen, euren ikasketa prozesu propioa garatuaz.

“Kalitatezko zaintza”

Zaintza geroz eta pisu gehiago hartzen ari da Laudio Ikastolako haur hezkuntzako geletan. Hezitzaileen aburuz, badaude haurren eta helduen ar-

teko “lotura estuak” sortzeko balio duten zenbait une: bazkalordua, garbitzekoa, lo egitekoa... “Haurrari bere motrizitatea garatzen modu askean uzten diogunean, helduak ez du eten gabe haur horrekin egon behar eta denbora dauka beste gauza batzuk egiteko. Esaterako, zaintzako momentuetan eman dezake denbora gehiago”. Horregatik, bazkalordua edo pixoihala aldatzea, lo egitea edo esnatzea atsegingarri bihurtzen matzen dira hezitzaileak.

“Sozializazio baketsua”

Laudio Ikastolako kideen ustez oso garrantzitsua da helduak haurraren “erritmoan, errespetuan eta baita bere gaitasunetan” konfiantza izatea. “Modu horretan hazten den haurra osasuntsua izango da eta kapa-za izango da gizarteratze helburuari aurre egiteko”.

Hala ere, sozializazio prozesu hori “modu baketsuan” egin behar dela aldarrikatzen dute hezitzaileek. “Helduak ezin du haurra sozializatzea behartu berari hala komeni zaion moduan eta erritmoan”. Horregatik, umeak behar duen denbora eta erritmoa “zaindu eta errespetatu” egiten dute Laudio Ikastolan.

“Haur bat gai da bere motrizitate guztia bera bakarrik eraikitzeko”



ZIORTZA ORUETA LAUDIO IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEA DA.

Haurraren mugimendu askea sustatzen hasi zarete Laudio Ikastolan. Zertan datza?

Haur bat gai da bere motrizitate guztia bera bakarrik eraikitzeko, helduaren batere laguntzarik gabe. Uste dugu pertsona guztiak genetikoki programatuta gaudela motrizitate autonomo garatzeko. Alegia, etzanda egotetik ibiltzen hastera bitarteko prozesu guztia, urrats guztiak, haurrak berak bere kabuz ikasteko gaitasuna duela sinisten dugu, helduak ezer erakutsi gabe. Baina aulkitxo batean lotuta badago edo mugitzeko espaziorik ez baldin badu, nekez garatuko du gaitasun hori.

Eta konturatu gara helduek hori sinesten dutenean, erabat haur desberdinak topatzen ditugula; haur seguruak, bere buruarengan konfiantza dutenak, behartzen ez dituen heldu horrengan konfiantza dutenak, ekimena dutenak... Baina haurrak gaitasun hori gara dezan helduak baldintzak sortu behar ditu eta, esan bezala, horrela gertatzen denean erabat haur desberdinak hazten ditugu.

Mugimendu autonomo horren garapenean, zer paper jokatu beharko lukete helduek?

Haurrari askotan ahal duena baino gehiago exijitzen zaio. Haurrak oraindik egin ezin duena erakusten saiatzen dira helduak etengabe eta umeak sentitzen du sekula ez duela heldua

“Gure proposamena, haurraren gaitasunei begiratzea da, zer egiteko gai den ikustea eta ez hainbeste zer egiten ez duen”

kontentatzen. Haur batek ezin du zerbait ikasi horretarako nahikoa heldua ez bada, oraindik prest ez baldin badago. Ikasi-ko du akaso, baina gaizki egiten, eta ez da seguru sentituko, baldarra eta traketsa baizik.

Noiz da komenigarria haurrak oinez ibiltzen ikastea?

Ikasketa prozesuaren epeak oso zabalak dira. Badira 13 hilabeterekin oinez hasten diren haurrak eta baita 20 hilabeterekin hasten direnak ere. Eta hori normala da, ez da ezer gertatzen. Izan ere, oinez ikasi aurretik gauza mordoa ikasten eta aztertzen dute haur horiek; arrastaka ibiltzen, lau hanketan, han eta hemen igotzen... Haurrak ez du denbora galtzen, bere mugimenduak aberasten ari baita. 10 hilabeterekin oinez hasten den haurra seguru aski helduak horretara jarri duelako egin du, behartu egin duelako, erakutsi

egin diolako. Normalean, bere kabuz bakarrik ibiltzen ikasten duen haurrak sekulako oreka eta harmonia izaten du; bere jarri-erara eta mugimendu propioak garatzeko nahikoa denbora izan duelako.

Beraz, haurraren mugimendua askoz orekatuagoa, seguruagoa eta aberatsagoa da bere kabuz ikasten duenean. Badakigu, norberaren bide eta erritmoan hazten diren haurrak sanoagoak direla, bai fisikoki, bai biologikoki eta baita mentalki ere.

“Haurrak gaitasun hori gara dezan helduak baldintzak sortu behar ditu. Horrela gertatzen denean haur erabat desberdinak hazten ditugu”

Gure proposamena, haurraren gaitasunei begiratzea da, zer egiteko gai den ikustea eta ez hainbeste zer egiten ez duen.

Laudio Ikastola

AMETS BERRIAK LANTZEN

ATE
IREKIEN
EGUNA

MAIATZAK 4,
OSTIRALA
17:30etik 19:30era

MATRIKULA ZABALIK

maiatzaren 14 arte

0 - 1 URTE

ZATOZ IKASTOLA EZAGUTZERA ETA
ZURE SEME-ALABAREN IZENA DUEN
POLTSATXOA EMANGO DIZUGU!
ATE IREKIEN EGUNERA EZIN BADUZU
ETORRI, BESTE EDOZEIN EGUNETAN
HURBILDU, ATEAK EGUNERO IREKITA
DITUGU EZAGUTU GAITZAZUN.

telefonoa:
946726737

LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus



Erreportajea

“Haurren Plaza” zabalduko du Aiaraldea hedabideak

“Haurren Plaza” gunea sortu du Aiaraldea Hedabideak. Modu horretan, maiatzetik aurrera eskualdeko haur eta gazteen lan edota lorpenak jasoko dituzte *Aiaraldea Gaur* (www.aiaraldea.eus) atari digitalaketa *Aiaraldea Hemen* hamabostekariak. Besteak beste, ikastetxeetako albisteak, umeen marrazkiak, txisteak, asmakizunak, gomendioak edota errezetak plaza-ratuko dira webgunean.

Adin tarte guztiei zuzendutako edukiak ekoizteko emango du jautzia komunikabideak. Hala, batetik, ikasturtean zehar egindako Kazetaritza Eskoletako lanak plazaratuko dira egunkarian. Eta, bestetik, heziketa guneezberdinetako lanak biltzeko aukera emango du; hala nola aisialdi taldeek bidalitako ekintzenak, ikastetxeetako jarduerenak edota umek propioko



bidalitako edukienak. Harremanetarako edota informazioa bidaltzeko erredakzioa@aiaraldea.eus helbidea jarriko da eskura, bai eta 688848152 telefonoa ere. Halaber, *Aiaraldea Hemen* egunkariko “Aia-

raldea Txiki” atalak zenbait moldaketa izango ditu hurrengo aletik aurrera. Denborapasez gain, eskualdeko haurrek idatzitako txisteak eta asmakizunak topatuko ditugu bertan.

Tipi Tapa

Xarma berezia duen eskola

Xarma berezia duen haurreskola da Tipi Tapa. Pikler pedagogia baliatzen dute bertan, haurra egoki garatzea helburu. “Ezinbestekoa da haurra maitatua, errespetatua eta seguru sentitzea”, azaldu dute haurreskolako kideek.

“Mugimendu autonomo librea” baliatzen dute horretarako, haurrak “bere gorputzaren eta gaitasunen ezagutza osoa” eskuratu dezan, “bere bizitzako protagonista dela onartzuz”.

“Gorputza zaintzeko uneei” ere arreta berezia eskaintzen

diete, zaintza uneetan haurra “solaskide aktibo” gisa hartuta. Pardel aldaketari, adibidez, “urre gorrizko” denbora eskaintzen diote.

Hezkuntza berezi horren parte gisa ulertzen dute jatordua ere. “Bazkariak samurtasunez betetako une izan beharko lukete, baita elkarriketarako eta konplizitatetarako tarte ere”.

“Une magikoak”

Jarduera autonomoak eguneroko mila momentu magiko eskaintzen ditu, hezitzaileek na-

barmendu dutenez. “Kontu eta mimo handiz prestatutako espazio berezi bat eskaintzen diogu umeari gelan, bere adinaren eta garapen mailaren arabera material anitzez hornitua”. Kanpora ere “ahal duten guztietan” ateratzen dira.

Gurasoen papera ere garrantzitsua da Tipi Tapan. “Familiek Haurreskolako ateak zabalik dituzte une oro. Gelara sartzea eskertzen diegu, sarreran geratu beharrean”. Harreman “gero eta hurbilagoa eta konfiantzazkoa” garatu nahi dute horrela.

PISA azterketari planto egin diote ikasleek



Hezkuntza Sailak eskualdeko lau zentrotan gauzatu nahi izan du PISA azterketa: Urduñako Antzinako Andra Mari ikastetxean, Audio Ikastolan, Audio BHIn eta Zaroabe Institutuan. Zentro bakoitzetik DBH 3-4. mailako 53 ikasle daude deitua azterketa egitera.

Eskualdeko hezkuntza eta ikasle eragileek planto egiteko deia zabaldu dute, eta aipatutako lau ikastetxe horietako hirtan egin diote uko proba gauzatzeari.

Iragan ostegunean -apirilaren 19an- izan zen lehenbiziko proba, Audio Institutuan, hain zuzen. Planto deialdiei jarraiki, azterketa salatzeko mobilizazioak egin zituzten DBH 3. eta 4. mailako zenbait gaztek. Probari izkin egiteaz gain, Audio Ikastolara bertaratu ziren ikasleak; bertan ere planteatu baitute PISA azterketa. Hala, elkarretaratzea egin zuten ikastolaren aurrean, azterketa eta “lege arrotzen” aurka. Mobilizazioaren ostean Ertzaintzak bi gazte identifikatu zituen.

Ostiralean, aldiz, Amurrioko Zaroabe Institutura joan ziren

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak; azterketa egiteko asmoarekin. Alabaina, 53 ikaslelik lau baino ez zuten onartu. 53 ikasle hautatuak azterketa gelara eraman zituzten, baina gazteak altxatu eta pasillora atera ziren.

Laudio Ikastola eta Urduñako Andra Mari ikastetxea izango dira galbahea pasatzen hurrengoak. Data zehatzik ez badago ere, maiatzaren 4a baino lehen izango dela ohartarazi dute. Bien bitartean, baina, mobilizazioetarako deia zabaldu dute.

Horrez gain, PISA azterketa egiteko hautatuak izan diren ikastetxeek DBH 4. mailako kanpo ebaluazio diagnostikoa egin beharko dute maiatzean. Froga horri ere planto egiteko deia luzatu dute.

DBHko ziklo amaiera, baina, ez da izan gaur arte hautaprobetara deitua izan den etapa bakarra. Martxoan, Lehen Hezkuntzako seigarren mailan “ziklo amaierako kanpo-ebaluazioa” burutu zuten. Azterketari planto jarrerarekin erantzun zieten ordukoan ere hainbat ikastetxek.

TIPI TAPA
HAURRESKOLA AMURRIO



Arenalde kalea, 5 AMURRIO
945 89 32 59

HAURRA ETA FAMILIA

Zer eskaintzen dugu?

- 0-2 urte
- Ordutegia: 7:30 – 17:00
- Kalitatezko zainketak
- Mugimendu askea
- Jolas librea
- Material eta espazio egokiak

Matrikulazio epea:

Apirilak 30etik maiatzak 11ra



La Milagrosa ikastetxea

La Milagrosako ikasleen ekintzailtza proiektua, 1.232 lanen artean hautatua

La Milagrosa ikastetxeko ikasleek egindako ekintzailtza-proiektua La Caixak antolatutako *Desafío emprende* lehiaketako 35 lan onenen artean dago. Oso postu ona da hori, guztira 1.232 lan aurkeztu baitira nor-gehiagokara.

Lorpen aipagarri horren arduradunak Enara Goikoetxea, Ane Azula, Xabier Jiménez eta Naroa Borbolla dira. La Milagrosako DBHko 4.mailako ikasle horiei ideia berritzaile hau bururatu zitzaion: ekodiseinuan oinarritutako eraikin adimenduna sortzea, *Econstrucción* izendatu dutena.

Bere ezaugarri nagusien artean ur eta energiaren aurrezpena dago. Proiektu hau egitea Ekintzailtza eta enpresa jardueretarako hastapena irakasgaiaren helburuetako bat zen. Proiektua burutzerakoan bibal-dintza ezarri ziren. Alde bate-tik metodologia kolaboratiboa erabiltzea eta, bestetik, ideia-ren jasangarritasun ekonomi-



koa, soziala eta ingurumenekoa lortzea. Ideiaren bidegarritasuna aztertu ondoren eraikinaren prototipoa diseinatu eta marketin-estrategia definitu zuten. Emaiza oso ona zen eta La Caixa-ren lehiaketara aurkeztu zuten.

Silicon Valley-ra

Orain, euren esfortzu eta ilu-

sioek saria izan dute: Bartzelonan proiektua defendatuko dute adituen epaimahai baten aurrean eta lehenengo bost finalisten artean geratzen badi-ra Silicon Valley-ra, -San Franzisko, Estatu Batuak-, joateko bidaia irabaziko dute.

Oso lan gogorra egin dute eta Bartzelonara joateko aukera merezitakoa da, zalantzarik

Informazio eta komunikazio teknologietan maila aurreratua

Teknologia berrien erabileran pausu esanguratsuak egin ditu ikastetxeak azken urteetan, eta lanean jarraitzen dute.

La Milagrosa Ikastetxean teknologia berriek ikasleen ikasteko prozesuan egon behar dutela uste dute. Horregatik, hori lortzeko behar dituzten baliabideak ezarri dituzte ikasgeletan, urtez urte. Esfortzuari eta ekimenari esker, Interneten bidez emaitzak eman zituen Laudio-ko lehen ikastetxea izan zen La Milagrosa, eta 2018an Informazio eta Komunikazio Teknologia-tan -IKT- heldutasun-maila aurreratua eskuratu zuten.

Zentzu horretan, ikastetxeko kideek nabarmendu dute guztiz ezarria dagoela irakaskuntza, administrazio eta komunikazio prozesuen birtualizazioa. Azpiegituretan, formazioan eta berrikuntzan etengabeko aurrerapausoak eman dituzte eta, adierazi dutenez, pozik daude emaitzarekin: "Ohorea da gure-

tzat Laudion gaur egun alderdi honetan ere ikastetxe erreferentia izatea".

Lanean jarraitzen dute

Baina ez dira horretan gertatu. Aspaldi hasi ziren ikasgelaren birtualizazioarekin, *moodle* plataforma erabiliz, eta 2015-2016 ikasturteaz geroztik *Google suite for education* programaren erabilera zabaltu zuten.

Horrez gain, Ikasketa Ingurune Birtuala baliatzen dute Lehen Hezkuntzako 3. zikloan eta Bigarren Hezkuntzako irakasgaietan apunteak kontsultatzeko edota lanak aurkezteko, besteak beste.

Educamos plataforma ere erabiltzen dute. Ikastetxearen eta familien arteko komunikazioa sustatzen dute Internet bidez eta azterketetako notak, faltak eta abar igotzen dituzte.

Eraiki gurekin zure etorkizuna



La Milagrosa
Laudio

Ikastetxea

B eta D ereduak
0 - 16 urte
Zerbitzu anitzak
Ordutegi zabala

Ikaskuntza Kooperatiboa
Teknologia Berriak
Hizkuntzak
Baloreak

La Milagrosa Ikastetxea





94 672 07 01
www.lamilagrosall.net

Erreportajea

Geroz eta ikasgela gehiago daude eskualdean, dagoen beharrari erantzunez

Ikasleek talde lanak egin edo azterketak prestatzeko espazioak behar dituzte. Ikasketa-garaian jendez betetzen dira udal-liburutegiak, horrelako espazioekiko dagoen beharraren seinale. Herri batzuetan ordutegi bereziak prestatzen dituzte. Beste batzuetan, aldiz, espazio berezituak atondu dituzte ikasleentzat. Lau-dioko gazte talde batek Lamuza Parkeko Kultur Etxeko espazio huts bat okupatu berri du, “ikasketa kritikorako” gune bat eraikitzeko.



Eskualdeko hainbat liburutegitan ordutegi bereziak eskaintzen dituzte azterketa garaietan. **Jon Catalan**

Iragan apirilaren 13an Lau-dioko Lamuza Parkeko Kultur Etxeko espazio huts bat okupatu zuen gazte talde batek, bertan ikasgela bat atontzeko helburuarekin. “Gutxi dira ikasketako aukerak eskaintzen dituzten espazioak, are gutxiago ikasketa modu kritikoa sustatzen dutenak”, azaldu zuten okupazioa iragartzeko plazaratutako irakurketan. Gauzak hala, ikasgela xede horretara bideratua egongo dela jakinarazi zuten.

Bilera ireki eta auzolan ugari egin dituzte azken asteetan, proiektuari forma ematen hasteko. Iragan asteburuan, adibidez, bertso-afari bat egin zuten, egitasmoa finantzatzeko.

PSE-EE eta PP, aurka
Laudioko PP eta PSE-EEko ki-

deek prentsa-oharrak plazaratu zituzten iragan astean, okupazioaren aurka zeudela adierazi eta udalari “hartu beharreko neurriak” exigitzeko. Alderdi Popularreko kideek ohartarazi zuten udalak ezer egin ezean eurak arduratuko zirela espazioaren desalojoa gauzatzeko erabakiak hartzeaz.

Alderdi sozialistako kideek, aldiz, ikasgelaren “autogestio proiektuaren aurka” zeudela azpimarratu zuten, “Lamuza parkearen profesionalizazioa” aldarrikatzearekin batera.

Udalaren erantzuna

Iragan ostiraleko prentsaurrekoan azaldu zuen udalgobernu taldeak bere jarrera. Espazioa okupatu zuten gazteekin bilduko zirela jakinarazi




0 - 18
urte



**ANTZINAKO
ANDRA MARI
IKASTETXEA**
URDUÑA

Haurtzaindegia / Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza / DBH / Batxilergoa

Foru plaza, 5
48460 Urduña (Bizkaia) 945 38 48 30
secretaria@colegiojosefinos.com



Q
2 0 1 3

**KRISTAU
ESKOLA**

Sar
H
zkuntza


IKT Ikastetxe Eredua
Modelo de Madurez TIC
MAILA ENTAINA / NIVEL MEDIO

Alexia 
COMUNICACIÓN ESCUELA + FAMILIA

Google
for Education

Erreportajea

zuten, “euren iritzien berri jaso eta, era berean, udalaren iritzia helarazteko”. Zentzu horretan, udal-gobenuko kideek adierazi zuten ez zutela “desalojo politzial bat” sustatuko.

Eskualdeko ikasgelak

Garrantzi handia dute ikasteko espazioek eskualdeko ikasleentzako. Azterketa garaian udal-liburutegietara joatea baino ez dago halako espazioen beharraz jabetzeko. Hori dela eta, liburutegi askotan ordutegi bereziak izaten dituzte ikasketa-garaian. Hala egiten dute Lau-diokoan, adibidez. Iaz 299 egunez egon zen udal-liburutegia irekita, eta horietako 32 azterketa garaian izan ziren, udalak emandako datuen arabera.

Antzeko zerbait egiten dute Amurrion. Udal liburutegia maiatza eta ekaineko asteburuetan zabaltzen da ikasgela moduan. Horrez gain, El Reforren ere badago ikasteko aukera, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 20:30etara.

Ikasgela ugari eskualdean

Arrankudiaga-Zolloko Udalak lonja bat du alokatuta herriko elizaren aurrean. Bi gela ditu, ikastaroak egiteko bata eta ikasgela bezala erabiltzeko bes-

Eskualdeko hainbat herritan dituzte azterketak prestatu edo talde-lanak egitera bideratutako espazioak



Auzolanak egiten ari dira Lau-dioko Lamuza Parkean okupatutako espazioan ikasgela bat atontzeko. Aiaraldea.eus

tea. Udalean giltza eskatuta erabili daitezke biak.

Urduñan, aldiz, bi ikasgela daude: taldekako lanak egiteko eta ixilik ikasteko gela. Biak daude Alondegian eta astelehenetik ostiralera erabili daitezke, goizez (10:00-13:30) zein arratsalde (16:30 - 20:30). Orozkon, aldiz, gaztetxokoa baliatzen da azterketa garaian ikasteko gune gisa.

Aiara eta Artziniegako udalek badute mota horretako espazioak sortzeko asmoa

Eskualdeko beste herri batzuetan, aldiz, ikasgelak erakitze asmotan dabiltza. Artziniegan udaletxe zaharrean atondu nahi dute, Gazte Txokoaren barruan.

Luiaondon, aldiz, Pakita Etxean kokatuko dute. “Diru laguntza eskatu diogu horretarako Arabako Foru Aldundiari”, jakinarazi du Gentza Alamillo Aiara alkateak.



TANTAKA HAURRESKOLA

MATRIKULA ZABALIK
2017-2018an jaioetako haurrentzat
(irailan, urrian eta azaroan hasteko)
Apirilaren 30etik maiatzaren 11ra



Tantakan haurra da protagonista eta haur bakoitzaren erritmoa errespetatzen da.

- Egokitzapen indibidualizatua.
- Esperimentatzeko aukera.
- Familiekin harreman zuzena.

Etxegoien, 15 AMURRIO T. 945 891 816

Laudio Ikastola

Batxilergoa

Hezkuntza eraldaketaren epizentrorantz pausoak ematen

Laudio Ikastolan argi dute hezkuntzan “eraldaketa sakona” ematen ari dela. Horri egokitzeko pausoak ematen hasiak dira dagoeneko, beste hainbat ikastolarekin batera.



Laudio Ikastolako kideen arabera, “ukaezina” da hezkuntza eraldatzen ari dela. Horren gainean hausnartzeari ekin diote ikastetxeko hezitzaileek, eta hasiak dira dagoeneko lehen pausoak ematen. Euren ustez, “beldurrak kentzeko garaia” da honakoa. “Agerikoa da eraldaketa behar-beharrezkoa dela. Ausarta izateko unea heldu da”.

HesiHes kooperatiba

HesiHes kooperatiba da hezkuntzaren eraldaketa prozesu horretan Laudio Ikastolako kideek eman duten lehen pausoa. Batxilergoko 1. mailako 59 ikasleren artean sortu dute egitasmoa. Ikasgelatik harago doan proiektua da: bere xedea ez da soilik ikasketa-prozesuaren pieza bat gehiago izatea, gizartea eraldatzea ere baitute helburu. Irakasleek, euren aldetik, argi dute heldu dela “ikasleari begirada berri batekin begiratzeko ordua”. Zentzu horretan, euren asmoa “ikasleei laguntzea” dela nabarmendu dute, “heldutasunez jokatzeko irakatsiz, jende ona eta zoriontsua izaten lagunduz, emozioak kudeatzen erakutsiz, sortzaile izaten, elkarlanean lan egiten, informazioa bilatzen...”. Horretarako funtsezkoa iruditzen zaie “beste era batera” lan egitea, “ikasleen motibazioei erreparatuz, hainbat diszipli-

na jorratuz, talde lanean ari-tuz...”. Modu horretan, ikasleen garapen-pertsonalean “bete-be-tean” eragingo dutela uste dute.

Ikastola guztiak bide berean

Batxilergoko eta Lanbide Heziketako Ikastolen Praktika Onen V. Jardunaldian aurkeztu zituzten Batxilergoko ikasleek HesiHes kooperatibaren nondik norakoak. Beste 25 ikastolak ere bertan plazaratu zituzten esku artean dituzten “proiektu eraldatzaileak”. Izan ere, Laudio Ikastolako ez da egitasmo isolatu bat, Ikastolen Elkartearen barruan dauden ikastola guztietan ekin diote hezkuntzaren eraldaketari erantzuteko pausoak emateari. Irakasleen esanetan, “inspirazio pilula asko” aurkeztu ziren jardunaldietan, baina “egingarriak” zirela frogatuta.

Datozen hilabete eta urteetan pausu gehiago emango dituzte Laudio Ikastolan. “Bihar-ko mundua sortu gabe dago, inork ez daki nolakoa izango den”, azaldu dute irakasleek, baina gaineratu dute argi dutela aurrerantzean dutela mugatu nahi kontzeptuak eta edukiak irakasten dituen ikastola bat izatera: “pertsonak lehenesten dituen ikastola izan nahi dugu, eta ahalegin horretan dihardugu”.

“16 urte izan arren, gizartean eragitea da gure asmoa”



BEÑAT SAGARTZATZU, AITOR DURANA eta NAHIA AGIRREBEITIA HESI HES KOOPERATIBA SORTU DUTE BESTE 56 IKASLEREkin BATERA.

Zertan datza zuen ekimena?

Kooperatiba sortu dugu: HesiHes. Laudio Ikastolako Batxilergoko 1. mailako ikasle guztien artean abiatu genuen. Batez ere, Edurne eta Jone, euskara eta ekonomia irakasleen laguntzari esker. Eurak izan dira gidariak, beste zenbait irakasleekin batera.

Zer helbururekin sortu zenu-ten egitasmoa?

Kooperatibaren helburua bikoitza da. Alde batetik, bestelako hezkuntza eredua posible dela erakustea. Konturatu gara ikastolako gainerako ikasleentzat erreferente bilakatzen ari garela. Guretzat argi dago egungo gizartea ez doala ondo eta arazotako bat da jasotzen dugun hezkuntza oinarrituta dagoela norbanakoetan eta lehiakortasuna sustatzen duela; kideak aurkari gisa ikustea, alegia. Baina gu ez gara etsaiak eta horrekin apurtu nahi dugu. Sustatu nahi dugu laguntza eta elkarlana.

Guztion artean batzen bagara helburu bat betetzeko, erronka askoz onuragarriagoa izango da guztiontzat. Enpatia falta ikaragarria dago eta gizartean bizi garen heinean, ingurukoak aintzat hartu behar ditugu.

Proiektuan landu ditugun edukien bidez konturatzen ari gara erabilera praktikoa dutela; gutunak idazten, sare sozialetan mezuak zabaltzen, kooperatiba sortzen, estatutuak sor-

“Bestelako hezkuntza eredua posible dela erakutsi nahi dugu”

tzen, elkarrekin harremanetan jartzen, ingelesa erabiltzen errefuxiatuekin hitz egin ahal izateko... Greziara joaten bagara ingelesa funtsezkoa izango da eta hizkuntza horretan ariketak egiten ari gara praktikatzeko.

Balio horiek guztiak ez dira liburu batean ikasten. Balioak eta gure gogoak batuz gero, gogotsuago lan egiten dugu eta gehiago ikastea lortzen dugu.

Uste dugu hori topatuko dugula etorkizunean unibertsitatean edo modulu bat egitean, gero eta gehiago bultzatzen baitira proiektuak, hainbeste azterketa egin ordez.

Horrez gain, Greziara joan nahi duzue errefuxiatuei laguntzeko.

Kooperatibaren beste helburu bat zen kolektibo bat laguntzea. Gure kasuan, erabaki genuen errefuxiatuak izatea. Sumatzen ari gara errefuxiatuak bilakatzen ari direla munduko ekonomiaren bigarren potentzia eta hori gure errua da. He-

rrialde garatuetan ateratzen ari gara etekinak horri esker: prostituzioa, organoen salmenta...

Zein izan da ikastetxearen parte hartzea?

Hasieratik lagundu gaituzte. Esaterako, gure kooperatibaren estatutuak Laudio Ikastolakoetan oinarrituta daude. Proiektuaren izaera gurea da eta baita irakasleena ere. 16 urteko ikasleok bakarrik ezin dugu hau egin.

Azkenengo helburua da Greziara joatea, baina ez dakigu lortuko dugun. Zaporeak elkarteko

“Balioak eta gure gogoak batuz gero, gogotsuago lan egiten dugu eta gehiago ikastea lortzen dugu”

kideekin jarri ginen harremanetan eta eurek ere pilo lagundu gaituzte.

Edonola ere, proiektuaren muina da bide honetan ikastea eta ahalik eta gehien laguntzea. 16 urte izan arren, gizartean eragitea.

Laudio Ikastola

**IKASTOLA
BIDE
LAGUN**

telefonoa:
946726737

**BA
TXI
LER
GOA**

**MATRIKULA
ZABALIK**

maiatzaren 14 arte



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus

Laudio BHI

Ile-apainketa eta estetika ikasketetan erreferente



Estetika, ile-apainketa eta edergintza ditu ardatz Laudio BHIren Lanbide Heziketaren alorrak. Institutuak oinarritzko lanbide heziketa eskaintzen du ile-apainketa, A eredu. Ez da DBH titulua izan behar eta profesionaltasun ziurtagiria lortzen da Erdi Mailako zikloko ikasketetan sartzeko.

Estetika eta Edergintza Zikloari dagokionez, teknologia eta teknika berrienak baliatu eta irakasten dira. Alor horretan erreferentea da Institutua, ikasketa horiek eskaintzen dituen zentro publiko bakarraita eskualdean.

Ikuspegi praktikoa eskaintzen dute eta, nabarmendu dutenez, oso altua da lanpostua

lortzen duten ikasleen kopurua.

Enplegurako formazioa eskaintzen du baita ere Laudio BHIk, eta ZIGa ere eskaintzen du, hezkuntza behar bereziko ikasleentzat. Maiatzaren amaierara arte dago aurrematrikula egiteko aukera. Horretarako informazio guztia www.laudioinstitutua.net atarian edo *Laudio Institutua* Facebook kontuan topatu daiteke.

Praktikak atzerrian

Praktikei dagokionez, erki-degoko enpresa garrantzitsuetan egiteko aukera izan ohi dute ikasleek. Aukera dago baita ere praktikak atzerrian egiteko, Leonardo eta Erasmus programen eta diru-laguntzen bidez.

Arte Batxilergoa ikasteko aukera bakarra Aiaraldean

Maiatzaren 2an irekiko da Laudio BHIko Batxilergo ikasketetan aurrematrikulatzeko epea eta 14ra arte egongo da zabalik. Eskaintza zabala eskaintzen du Laudio Institutuak ikasketa-fase horretan: Zientzietako Batxilergoa, Giza eta Gizarte Zientzietakoa eta Arteetakoa, hirurak D eredu.

Institutuko arduradunek nabarmendu dute bertakoa dela Arte Batxilergo ikasteko Aiaraldean dagoen aukera bakarra. Hainbat motatako prestakuntza eskaintzen dute batxilergo horretan. Alde batetik, Erdi eta Goi Mailako Zikloetarako formazioa ematen dute: zurgintza, serigrafia, estaldura murala, diseinu grafikoko artefinalista, autoedizioa, bitxigintza eta bisuteria, beira gaineko pintura,

argazkigintza artistikoa, publizitate grafikoa, arkitektura iragan-korra, dekorazio obrak, altzari-gintza, ehungintza artea, grabatuak, ilustrazioa...

Bestetik, Goi Mailako Diseinu ikasketetarako prestatzen dituzte ikasleak, eta baita artearekin erlaziozko graduak egiteko ere: Arte Ederrak, Historia, Artearen Historia, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Filosofia, Pedagogia, Kazetaritza...

Horrez gain, institutuko arduradunek azpimarratu dute "oso orientazio zerbitzu hurbila" eskaintzen dutela, ikasleei euren ibilbidean ahalik eta gehien laguntzeko.

Maiatzaren 2an 18:00etan Ate Irekien jardunaldia egingo dute familiak eta ikasleak ikastetxea ezagutu dezaten.

“Programatzaile gisa aritu nahiko nuke, aplikazioak edo jokoak egiteko”



URTZI PUENTE LAUDIO INSTITUKO IKASLEA IZAN ZEN ETA EGUN INGENIARITZA IKASTEN ARI DA. ESPEDIENTE ONENAREN IDOM SARIA ESKURATU DU.

Zein ingeniari-tate ari zara egiten?

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza.

Zer dela eta aukeratu zenuek karrera eta espezialitate hori? Inork lagundu zizun aukeratzeko?

Informatikaren arloa beti izan dut gustuko, eta hori izan da, batez ere, nire erabakian eragin gehien izan duena. Horrez gain, programatzen ikastea ere baneukan buruan, nahiko interesgarria iruditzen zitzaidalako. Laguntzari begira, ez nuen inolako laguntzarik izan aukeraketan, jada nahiko argi nuelako zer nolako karrera egin nahi nuen.

Aipatu behar dut ere, nire gurasoek beti esaten zidatela gustuko nuen egin behar nuela eta edozein aukeraketan ados egongo zirela.

Begi bistan dago lehen ikas-turtea oso ondo joan zaizula. Nola doakizu bigarren ikasturte hau?

Bigarren mailako lehenengo lauhilekoan ikasgaiak ondo eraman ditut aurrera eta horren ondorioz, lehenengo mailako batez besteko nota baino hobeagoa izatea lortu dut.

Bigarren lauhilekoari dagokionez, oraindik hilabete bat falta zait bukatzeko, baina momentuz, oso ondo doala esan dezaket baita ere.

“Ez nuen inolako laguntzarik izan aukeraketan, jada nahiko argi nuelako zer nolako karrera egin nahi nuen”

Nolako izan da orain arteko bizimodua fakultatean?

Momentuz, fakultateko bizimodua institutukoa bezalakoa dela esango nuke, baina aldaketa txiki batzuekin. Adibidez, egunero klase ordu gutxiago ditugu, baina gero etxean lan gehiago egin behar dugu.

Alde handia sumatu zenuek institututik fakultatera pasatzean?

Aldaketa egitean ez nuen ikusi alde handia zailtasunari dagokionez. Hala ere, aipatzekoa da, nahiko desberdina dela irakasgaien egitura. Hau da, alde handia dago unibertsitateko eta institutuko irakasgaien artean antolaketari dagokionez.

Bilboko fakultatean burutuko duzu karrera osoa ala atzerrian ere egoteko asmoa duzu?

Momentuz, pentsatuta dautkat karrera osoa Bilboko fakul-

tatean burutzea. Hala ere, gerta daiteke urte bat pasata pentsamenduz aldatzea.

Zeintzuk dira zure asmoak ikasketak bukatutakoan?

Behin ikasketak bukatuta, nire asmoa lan egiten hastea da. Horregatik, pentsatuta dautkat laugarren mailan enpresa batera praktiketan joatea eta horren bidez esperientzia lortzea.

“Fakultateko bizimodua institutukoa bezalakoa dela esango nuke, baina aldaketa txiki batzuekin”

Zein motatako lana izango zenuke gustuko?

Aplikazioak edo jokoak egiteko programatzaile bezala aritzea izango nuke gustuko.

Zein aholku emango zenieke orain batxilergo ikasten daudenei?


Beraien karrera erabakitzeke orduan, gustuko duten karrera bat hartzea. Nire ustez, ikasketak aurrera eramateko orduan, egiten ari zarena gustuko baduzu, ez zaizu horren astuna egingo.

Ibilbide akademikoa eta norberaren pasioak, elkarren eskutik

Gazte askoren buruhaustea izan ohi da hauxe: nola uztartu ikasketak norberaren pasio, zaletasun edo aukera profesionalekin? Luisa Ibarrola txirrindulariarengana eta

Nerea Iglesias Lili aktorearengana jo dugu, dilema horri nola erantzuten dioten jakiteko. Euren esperientziak kontatu eta hainbat gomendio eman dizkigute.

University of Minnesota



Nerea Iglesias audioarra eta Luisa Ibarrola saratxoarra ibilbide akademikoa eta profesionala uztartzen ari dira. Lehenak antzerkian dihardu. Bigarrenak, aldiz, txirrindularitzan. Diziiplina ezberdinak jorratu arren, biak datoz bat: denbora antolatzea da gakoa.

“Azterketak eta entrenamenduak egun berean izateak” zailtzen du gehien uztarketa, Luisa Ibarrolaren ustetan, “ikasketak egunean eramateak”. Horregatik murrizten ditu kirol prestaketa orduak institutuan probak dituenean.

Lehentasunak ezartzen

Nerea Iglesias Lilik, aldiz, lehentasunak ezartzeari ematen dio garrantzia: “Horretarako, norberak bizitzan non eta nola dagoen hausnartu beharra dauka, indarrei erreparatu, hartzen diren ardurak eramangarriak izateko eta estresagarriak bilaka ez daitezen”. Antzerkiak “on asko” egiten diola-eta, zailtasun sentimendua desegiten zaio audioarrari: “Zaila ez izateko niretzat inportantea da kalitateari arreta jartzea, ez kuantitateari. Lau proiektu beharrean-

Gazte askok uztartzen dituzte ikasketak euren zaletasun edo pasioen garatzearekin

bi hautatzen ditut”. Oztopo nagusien jakitun da Iglesias: “unibertsitateko eta antzerkiko une potenteak solapatzea”.

Eguneroko lana

Eguneroko lana da funtsezkoena Ibarrolarentzat: “Biak ondo eramateko entrenatzea eta etxerako lanak egunean eramatea da gakoa. Batzuetan ez da posible, baina saiatu egiten naiz”. Sekretua denbora bilatzea dela dio saratxoarrak: “Egin dezakezula sinestea, eta ondoren, batzuen ustez ez dagoen denbora bilatzea”.

Iglesiasek aktore izateko edo bestelako ametsak lortzeko ondorengo proposatzen du: plazera sortzen duen errutinak hartzea; “zintzotasuna izatea norberaren indarrarekin; eta urteak, egunak, orduak... horren arabera antolatzea, kalitatea kuantitatearen gainetik jarritz”.

Alabaina, zaintzearen beharra azpimarratu du, bai lan orduak eta baita atsedeneoak ere: “Izan ere, deskantsu barik ez dago energia berreskuratzetik, beraz, atsedena ere bere pisua du”.



Luisa Ibarrola

Txirrindularia



Nerea Iglesias Lili

Antzezlea

“Eguneroko lana funtsezkoa da. Entrenatzea eta etxeko lanak egunero egitea da gakoa. Batzuetan ez da posible, baina saiatu egiten naiz”

“Ustez ez dagoen denbora bilatzea eta egin dezakezula sinestea, ez dago beste sekreturik”

“Norberak bizitzan non eta nola dagoen hausnartu beharra dauka, indarrei erreparatu, hartzen diren ardurak eramangarriak izateko eta estresagarriak ez bilakatzeko”

“Kantitateari baino kalitateari ematen diot garrantzia”

audio language school
Open your mind!!

INGELES IKASTARO TRINKOA

B1_B2 mailak
Uztailaren 2tik 13ra.

Ordutegia
10:00etatik 13:00etara.

Talde txikia
6 pertsona gehienez

Kontsultatu prezioa

2018-19 matrikulazio epea zabalik!

Auf Wiedersehen!
Guten Tag!
Bonjour, ça va?
Au revoir!
Hi! Good morning!

tel.: 652 73 32 67
@ roezquerra@hotmail.com
/AudioLanguageSchool

Laudioalde

“Irakasleok prest gaude lanbide heziketa euskaraz eskaintzeko”



IÑAKI SOLAGUREN eta XABI UGALDE
LAUDIOALDE LANBIDE HEZIKETA IKASTETXEKO
ZUZENDARIORDEA ETA IKASKETA BURUA DIRA,
HURRENEZ HURREN.

Zer nolako bilakaera izan du euskarak lanbide heziketan?

Solaguren: Lanbide heziketa-ren sailburuordetzaren plan bat dago abian, euskaraz zikloak eskaintzea helburu duena. Euskararen presentziaren gabezia sumatzen zen Lanbide Heziketako zikloetan. Diagnostiko komun bat da hori. Ikasleek, aurreko ikasketak euskaraz egin arren, gaztelerazko zikloak hautatzen dituzte.

Aurten mekanizatua ikasten duen talde batekin hasi gara, eta asmoa da hurrengo urteetan talde gehiago batzea. Irakaskuntzaren erdia jasotzen dute euskaraz eta bestea gazteleraz.

Ugalde: Taldea hogeik ikasleek osatzen dute. Horietatik zortzik egiten dute erdia euskaraz. Beste irakasle batekin aritzen dira horretarako. Beste hamabiek dena gazteleraz ikasten dute. Egia esan, kostatu zitzaizgun zortziko talde hori osatzea. Inguru honetan, DBHneuskaraz ikasi arren, Lanbide Heziketara iristean gaztelerara jotzen dute gehienek.

Solaguren: Lanbide Heziketan praktikak pisu handia du. Horregatik, euskara biziagoa erabiltzen da, ez da horren akademikoa. Ikasturte honetakoa hasiera baino ez da izan. Zikloak bi kurtsokoak dira. Datorren urterako asmoa da bigarren ikasturtean ere euskarazko klase hauek

“Dena ondo bidean, hiru talde egongo dira datorren urtean klaseen erdia euskaraz jasotzen”

izatea eta lehenengo urtean hasten direnek ere aukera berdina izatea.

Gauzak hala, dena ondo bidean, hiru talde egongo dira datorren urtean ikasgaien erdia euskaraz jasotzen, 24 ikasle gutxienez. Gehiago animatzen badira, hobeto.

Kopuru hori apurka-apurka handitzen joatea da asmoa, beraz.

Ugalde: Eusko Jaurlaritzak markatzen duen bidea bada hemendik hiruzpalau urtera gure ziklo guztien erdia euskaraz eskaini ahal izatea, ikasgaien erdia gutxienez. Apurka-apurka eskaintza handitzen joatea da asmoa.

Kostatzen da euskaraz ikasi nahi duen jendea topatzea?

Ugalde: Bai, nahiz eta pentsa-

tu kontrakoa gertatu beharko litzatekeela. Irakasleak prestatuta gaude hezkuntza euskaraz emateko. Gure aldetik ez dago aparteko arazorik.

Solaguren: B+ zikloetan aritzen diren ikasleak ordu konkretu batzuetan bitan banatzen dira euskaraz eta erderaz jasotzeko irakaskuntza. Horretarako Eusko Jaurlaritzak baliabideak jartzen ditu.

Orain arte D edo A ereduak eskaini behar genituen. Orain modu honetan badugu tarte bidea eskaintzeko aukera, euskaraz modu erasoago batean irakastekoa. Egon dira kasuak zeintzuetan D ereduak eskaini den eta bertan behera utzi behar izan den taldea, gutxiengo ikasle kopurura iritsi ez garelako. Modu honetan, zikloa mantentzea bermatzen dugu. Euskaraz ikasi duen taldetxo bat ateratzen bada aukera dauka ordu batzuek euskaraz egiteko.

Ugalde: Klaseen kalitatea handitu egiten da gainera, ikasle gutxiago daudelako irakasle bakoitzeko. Irakaskuntza askoz pertsonalatuagoa eskaintzea ahalbidetzen du horrek. Plan gintza hau aurrera ateratzea izango da gure helburua. Datorren urterako bermatua dago euskarazko eskaintza Erdi mailako 1. eta 2. Mekanizazioan eta Goi mailako Automatizazio eta Robotika Industrialean.

Irakasteko modu berriak abian, “gauzak egiteko grina” transmititzeko

Berrikuntzaren munduan murgiltzeari ekin dio Laudioalde ikastetxeak. Bilerak egiten hasi dira enpresekiko zein beste eskolekiko loturak indartzeko. “Mundu teknologiko batean bizi gara eta teknologiak ahalbidetzen dituen ikasteko eta irakasteko modu berriak gurean txertatu behar ditugu”, azaldu dute.

Datorren urtean abian jarri nahi dituzten proiektuak aurreratu dituzte. “Hurrengo ikasturtean irakasteko teknika berriak landuko ditugu Batxilergoan”, azaldu dute. Teoria hutsa ematek “lan praktikoak” proposatzera igaroko dira, “ikasgaien arteko mugak apurtzeko”. Proiektuak funtzionatu dute. “Gai bat hautatuko dugu, gero ikasgaiak gai horretara egokituko”.

Loturak indartu

Eskolaren eta gizartearen arteko loturak indartu nahi dituzte horrela. “Aproposa da ikasleentzat, lanak aurrera erama-

teko erantzukizun handiagoa hartu beharko dutelako euren gain”, azaldu dute ikastetxeko irakasleek. “Klase magistral batean erantzukizun gehiena irakaslearena da, eta ikasleena askoz jarrera pasiboagoa da, entzuteratzen baitira”.

Horren aurrean, jarrera “positibo eta aktiboa” sustatu nahi dituzte: “Ikasleak enpresetara doazenean horrelako gaitasunak eskatzen dizkiete, gauzak egiteko grina izan behar dute”. Ohiko irakaskuntza prozesuarekin jarraituz gero, ikasleak enpresetara iristean “ustekabeko errealitate batekin” egingo lukete topo, Laudioaldeko irakasleentz.

Ikastetxeko arduradunak baikor azaldu dira egitasmoarekiko. “Beste eskoletan egon diren esperientziak onak izan dira eta espero dugu Laudioalden ere halakoak izatea”. Xede argia dute: “ahalik eta ikasle gehienera ahalik eta hezkuntza hoberena ematea”.





LAUDIOALDE LANBIDE ESKOLA

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- Soldadura

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio-kudeaketa
- Instalazio Elektriko eta Automatikoak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

BATXILERGOA (euskaraz eta gaztelaniaz)

- Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Zuzendaritzari laguntza ematea
- Administrazioa eta Finantzak
- Sistema Elektromekanikoak eta Automatizatuak
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Mekatronika Industrialak
- Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programatzea

2018/19KO (AURRE)MATRIKULA EGITEKO DATAK

Batxilergoko aurrematrikulak: Maiatzaren 2tik 14ra · Matrikulak: Ekainaren 20tik Uztailaren 6ra.
Lanbide Zikloetako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako aurrematrikulak webgunean kontsultatu.



Virgen del Carmen, 17 01400 Laudio (Araba)
Tel: 946 72 05 05 Fax: 946 72 10 57
secretaria@laudioalde.eus
www.laudioalde.eus

Informazio gehiago:
www.gureskola.net
Erabiltzailea: laudio.ikasle
Pasahitza: laudio.ikasle

Zaraobe

Batxilergoa

“Urte askotako esperientzia dago emaitza onen atzean”

IÑAKI RODRIGO ZARAOBE INSTITUTUKO ZUZENDARIA DA. IKASTETXEAREN LORPEN ETA ERRONKAK IZAN DITU HIZPIDE.

Lanbide Heziketa ala Batxilergoa, zein da zure gomen-dioa?

Ez daukat gomendiorik. Argi dago gradu bat ikasteko asmoa egotekotan zalantza gehiago sortu daitezkeela erabakia hartzeko orduan. Graduaren arabera jaso izan dugu unibertsitateko profesionalen eskutik, goi mailako zikloetatik joandako ikasleek oso oinarri ona dutela arlo praktikoak eman dien ezagutza dela eta. Aldiz, batxilergoa ikasterakoan hartzen diren ohiturak eta diziiplina oso lagungarriak izan daitezke unibertsitatean aritzeko.

Batxilergo gogorra dela esaten da. Ados al zaude?

Ez dakit gogorra den, baina egia da ahalegin handia eskatzen duela. Sartzen denak buru belarri ikasteko prest egon behar du. Batxilergoaren bukaeran unibertsitaterako sarrera proba-lehenengo “selektibitatea” dago; horrek asko baldintzatzen du,



bai eduki aldetik, baita erabiltzen den metodologia aldetik.

Iazko selektibitatean oso nota onak ateratu zituzten Zarobeko ikasleek. Pozik?

Bai, egia da iazko emaitzak onak izan zirela. Ikasgai gehienetan Euskadiko batez bestekoaren gainetik ibili ziren. Horren atzean urte askotako esperientzia dago, eta lan handia, bai irakasle bai eta ikasleen partez ere.

Erronkarik duzue buruan?

Metodologia aktiboak ezartzea hezkuntzaren kalitatea eta emaitzak jaitsi gabe. Horrekin batera, eleaniztasun proiektuarekin hasi nahi dugu, ikasgaiaren bat ingelesez eskainiz.

Bestalde, nazioarteko harremanetan sakondu nahi dugu, trukaketak indartuz. Italiako Regina Margherita institutuarekin dugun harremana gorai-patu behar dugu.

EMAITZAK, GURE AURKEZPEN GUTUNA

Zarobeko ikasleen emaitzak batez bestekoaren gainetik egon ziren iazko selektibitateko deialdian.

EMAITZAK SELEKTIBITATEA 2017



Azken 6 urteetatik bostean %100-ek gainditu dute selektibitatea.

GAINDITUEN KOPURUA 2017



Etxebarrriaur kalea, 6
01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net

www.zaraobe.net @zaraobeinsti



BATXILERGOA

ZIENTZIAK

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK



- D EREDUA
- BANAKAKO ORIENTAZIO AKADEMIKO PROFESIONALA
- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK ESKURA
- EGA PRESTATZEKO IKASTAROA
- KULTURA SUSTATZEKO PROGRAMAK
- NAZIOARTEKO TRUKAKETA

Ikaskuntza Duala, geratzeko etorri den modalitatea

Geroz eta indar handiagoa hartzen ari da Ikaskuntza Duala Zaraobe Institutuan. Iaz hiru ikaslek ikasi zuten modalitate horretan. Aurten, aldiz, 14 dira. Horietatik 6 Tubacexen daude espezializazio zikloa egiten. 10 ikasle Mekatronika Industrialeko Goi mailako zikloa ikasten ari dira eta 4 Erdi mailako Mekanizazioa.

Ikasketa prozesuaren erdia ikastetxean eta beste erdia enpresa batean egitean datza ikaskuntza mota hori. Ikasleek 1. maila institutuan egiten dute eta gero enpresan hasten dira lanean urtebeterako.

Batzuetan espezializazioa egiten dute -hirugarren urtean- eta kasu batzuetan atzerrira joaten dira -laugarren urtean-, enpresaren lantegi batean lan egiteko.

Zaraobe Institutuko arduradunek aurreratu dute aurten “ziklo industrial guztietako ikasleek” izango dutela egitaspora batzeko aukera, enpresa gehiago gehituko direlako programara.


Lana lortzeko aukerak

Nabarmendu dutenez, lana lortzeko aukerak asko handitzen dira Ikaskuntza Duala egiten duten ikasleen artean. EAEko datuen arabera, ikasleen %80k amaitzen du lan egiten praktikak egiten dituen enpresa berean.

Hala ere, ikasleen ustez, gogorra da Ikaskuntza Dualean aritzea. “Esfortzu berezia” eskatzen duela ohartarazi dute. Baina ahalegin horrek pena merezi duela ziurtatu dute Zaraobe kideek.



Etekin Handiko Zikloak, klaseei buelta emateko tresna



ETHAZI -Etekin Handiko Zikloak- egitasmoan murgilduta dago Zaraobe Institutua. Klaseen formatuari buelta ematea eta “ikaskuntza kolaboratiboa” sustatzea da ekimen horren helburua. Erdi mailako Mekanizazio zikloan hasi dira metodologia hori ezartzen eta beste zikloetara ere zabaltzeko nahi dute laster.

Erronken gauzatzean oinarritzen da ETHAZI. Ikasleek ez dute ohiko klaseen eskema jarraitzen. Ez dute ordutegirik, edo behintzat ez astero berdina. “Taldeen erronken arabera” erabakitzen dute aste bakoitzeko ordutegia eta ikastorduen nolakotasuna eta formatua. Zein irakasle edo espezialistarengana jo ere adosten dute.

Zaraobeko kideek azaldu dutenez “progresioa” ebaluatzen da, eta ikasleek ere parte hartzen dute ebaluazio horretan, “euren burua eta taldeko beste kideena baloratuz”.

Emaitza ezinobeak

Zaraobe Institutuko arduradunek azaldu dutenez, emaitza “ezinobeak” lortzen ari dira metodologia berriarekin. “Ikasleek gehiago gustatzen zaie klaseak egiteko era hau”, ziurtatu dute; “ikasten dena sendotasunez geratzen da, egiten ikasi le-mari zentzu guztia emanez”.

“Ikasleak motibatu” eta “ikasle-teko grina” piztu nahi dituzte horrela. “Hau da esku arteandun-gun erronka”, zehaztu dute.



Etzebarriur kalea, 6
01470 Amurrio, Araba
945 39 30 00 // zaraobe@zaraobe.net
www.zaraobe.net @zaraobeinsti



zaraobe
institutua

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

- ZURGINTZA

ERDI MAILAKO ZIKLOA

- MANTENTZE LAN ELEKTROMEKANIKOA
- MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETA
- MEKANIZAZIOA



GOI MAILAKO ZIKLOAK

- MEKATRONIKA

TXIKIAK BAINA AKTIBOAK!

- Eredu eleanitza goi mailako zikloan
- Metodologia aktiboak, proiektuetan oinarrituta
- Prestakuntza DUALA ziklo industrialetan
- Erasmus programa

Udalekuak 2018



Aiaraldea Ekintzen Faktoriak adin guztietarako udaleku eskaintza zabala prestatu du aurtengo udarako:

4 urtetatik
13 urtetara

AGROEKOLOGIA UDALEKU ITXIAK DELIKAN

Naturarekiko harremana berreskuratzeko asmoz, agroekologia izango da udaleku hauetako protagonista; tokiko nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa eta iraunkorra era jostagarri batean hurbilduko diegu parte hartzaileei

ORDUTEGIA: UDALEKUAK 10:00etatik 13:00etara izango dira. (Delikara bakoitza bere kabuz joan behar da)

TOKIA: DELIKAN, Santa Claran.

DATAK: 1. TXANDA: 2018ko uztailaren 8tik 14ra
2. TXANDA: 2018ko uztailaren 15etik 21era

ADINAK: 6-7 urtetatik (2011an jaioetakoak) 14 urtetara (2004ean jaioetakoak)

PREZIOA: BAZKIDEAK(*): 210 € / EZ-BAZKIDEAK: 250 €

6 urtetatik
14 urtetara

FAMILIA UDALEKU ITXIAK LAPUEBLA DE LABARCAN

Adin
guztierarako

Udalekuak esperientzia dibertigarri eta gogoangarria dira haur eta gazteentzat, baina zergatik ez gurasoentzat ere? Labarkan antolatu ditugun 4 eguneko udaleku itxi hauetan elkarrekin gozatuko dugu udalekuez.

ORDUTEGIA: Uztailaren 26an 17:30ean aterako gara eta uztailaren 29an 18:00ak aldera bueltatuko gara (bidaia, norbere autoan egingo dugu, eta ahalik eta auto gutxien mugitzeko antolatuko gara).

TOKIA: LAPUEBLA DE LABARCA

DATAK: 2018KO uztailaren 26tik uztailaren 29ra

ADINAK: Familia guztiak hartuko dira, 0 urtetatik gora.

PREZIOA: BAZKIDEAK (*) : HELDUAK: 120 € / HAURRAK: 100 €
EZ-BAZKIDEAK: HELDUAK: 140 € / HAURRAK: 120€
2016tik behera jaioetakoek ez dute ordaintzen

(*) Aiaraldea Ekintzen Faktoriako bazkidea (bazkide izateko informazioa izen-ematean kontsultagarri egongo da)



IZEN EMATEA ETA INFORMAZIOA

Izena emateko azken eguna ekainaren 15a izango da.

• **BULEGOAN:** Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren bulegoan (nerbioi kalea, 12 LAUDIO)

• **TELEFONOZ:** 635751034 (9:00etatik 13:30ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte)

• **EMAILEZ:** Hezkuntza@aiaraldea.eus

• **INTERNET BIDEZ:** www.labur.eus/faktoriaudalekuak2018



MUGIMENDU ASKERAKO ETA SORMENERAKO UDALEKU IREKIAK FAKTORIAN

Laudioko Industrialdean kokatuta dagoen Faktoria haur eta gazteen gune bilakatuko dugu txoko ezberdinak eskainiz haurrek eta gazteek beraien gaitasunak garatzeko: sukalde txokoa, arte eszenikoen gunea, tailerren espazioa, erlajazio gunea, jolas txokoa, eraikuntzarena...

ORDUTEGIA: UDALEKUAK 10:00etatik 13:00etara izango dira. (Arrankudiaga, Arakaldo, Areta, Luiaondo, Amurrio eta Urduñako haurrak herri bakoitzeko tren geltokietan jasoko ditugu, dagokion trenean hurbiltzeko Laudioko Gardea auzora).

TOKIA: Laudion, AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA (Laudioko industrialdea 4-8 pabilioian). Eskualde osoko haurrak trenez gerturatuko ditugu Laudioko Gardea auzora, hezitzaile batekin egingo dute etorrerako bidaia eta buelta.

DATAK: 1º TXANDA: 2018ko ekainaren 25etik 30era
2. TXANDA: 2018ko irailaren 3tik 8ra.

ADINAK: 4 urtetik (2014ean jaioetakoak) 13 urtetara (2005ean jaioetakoak).

PREZIOA: BAZKIDEAK (*) : 55 € / EZ-BAZKIDEAK: 65 €

GAZTE IBILTARI UDALEKU IBILTARIA AIARALDEAN

12 urtetatik
16 urtetara

Gazte! Animatu zaitez gurekin eta eskualdeko beste gazteekin batera aste ikaragarri bat pasatzera. egingo dugun guztiaren antolakuntzan parte hartuko duzue eta azken egunean Arrankudiagan denok batera antolatuko dugun jai batekin bukatuko dugu.

ORDUTEGIA: Irailaren 3an 16:00etan bilduko gara TERTANGAN eta irailaren 8an 12:00etan amaituko dugu ARRANKUDIAGAN (Tertangara joan eta Arrankudiagatik bueltatzea nork bere kabuz egin beharko du).

TOKIA: AIARALDEA ESKUALDEA. TERTANGATIK ARRANKUDIAGARA (Tertanga, Urduña, Amurrio, Orozko, Laudio, Arrankudiaga)

DATAK: 2018KO irailaren 3tik 8ra

ADINAK: 12 urtetatik (2006an jaioetakoak) 16 urtetara (2002an jaioetakoak)

PREZIOA: BAZKIDEAK (*) : 200 € / EZ-BAZKIDEAK: 240 €